Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko irailaren 20a, astelehena — 180 — Lunes, a 20 de septiembre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ITSASONDOKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak 2021ko abuztuaren 4ean egindako bilkuran, jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, behin betiko onespena eman zion Ibilgailu Astunekin Udal herri bide eta baso bideen erabilera arautzeko udal ordenantzaren aldaketari.

Erabaki hau irmoa da administrazio bidetik. Honen aurka errekurtso Kontentzioso-Administratiboa jarri ahal izango da Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, egoki iritzen den beste edozein aurkeztetik at.

Aldatutako ordenantzaren testu osoa argitaratzen da eta Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluak eskatu bezala, behar den zabalkundea ematen zaio.

Itsasondo, 2021eko irailaren 10a.—Alkatea.

(6011)

*Ibilgailu astunekin udal herri-bide eta baso-bideen erabilera arautzeko udal Ordenantza.*

*1. artikulua.*

Udal herri-bide eta baso-bideetatik ibilgailu astunak ibiltzeak sortzen dituen kalteei erreparatuta eta Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. 1. 31. eta 32. artikuluen eta Udalen Ondasunen Araudiaren 77. artikuluaren arabera, Itsasondoko Udalak bide horien erabilera arautzen du bide-zoruaren hondatzea ekiditeko eta udalerriaren eta oro har biztanleen interesak babesteko.

*2. artikulua.*

Udal herri-bideen erabilerarako baimenaren mende geratzen dira 6 tonatik gorako pisua duten ibilgailuak. Ez da onartuko 25 tona gainditzen duen ibilgailuen zirkulazioa, ezta herri-bideak moztea edo oztopatzea ere.

Atoia erabilgarria den bideetan, gehiengo pisu osoa 40 tonaraino igotzeko aukera izango da, berariaz eskatu ondoren Udalak baimentzen duenean.

Baserriko eguneroko ustiapenarekin zerikusia dutenak salbuetsiko dira baimen-behar honetatik, hala nola, pentsu edo bazka-garraioak, usurik eta antzekoak.

*3. artikulua.*

Bide hauetan, edozein ibilgailuaren gehiengo abiadura orduko 30 km izango da. Bestalde, zoladura duten mendi-bideetan gomazko gurpil-estalkiak dituzten ibilgailuak bakarrik onartzen dira eta, zorua edozein izanda ere, bideetatik enborrak arrastaka garraiatzea zeharo debekatuta dago.

*4. artikulua.*

Udalaren bide bat erabili behar duten jabe, garraiolari eta kontratistek dagokion udal-baimena eskatu beharko dute (instantzia ofiziala I. eranskinean dago), honakoak jasota:

## AYUNTAMIENTO DE ITSASONDO

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 4 de agosto de 2021 tras resolver las alegaciones presentadas durante el periodo de información pública, aprobó definitivamente la modificación de la ordenanza reguladora de la utilización de los caminos y pistas públicas con vehículos pesados.

Este acuerdo es firme por vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, a contar desde la presentación de cualquier otro que se estime oportuno.

Se publica el texto íntegro de la Ordenanza modificada y se le da la difusión necesaria, tal y como exige el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de la Práctica Local.

Itsasondo, a 10 de septiembre de 2021.—El alcalde.

(6011)

*Ordenanza reguladora de la utilización de los caminos y pistas públicas con vehículos pesados.*

*Artículo 1.*

En atención a los daños que causa en los caminos y pistas públicas de titularidad municipal la circulación por los mismos de vehículos pesados y al amparo de lo establecido en el artículo 17.1, 31 y 32 de la Ley 2/2016 y artículo 77 del Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales, el Ayuntamiento de Itsasondo regula la utilización de aquellos caminos para evitar el deterioro de su firme y salvaguardar los intereses del municipio y de los vecinos en general.

*Artículo 2.*

Queda sujeta a licencia la utilización de los caminos rurales de propiedad municipal por vehículos de peso superior a 6 toneladas. En ningún caso se permitirá tal circulación a vehículos que superen las 25 toneladas, ni tampoco el corte u obstaculización de caminos vecinales.

En los casos en que pueda utilizarse remolque se podrá incrementar el peso máximo autorizado hasta las 40 toneladas, una vez solicitado expresamente cuando el ayuntamiento lo solicite.

Quedaran exentos de esta obligación aquellos servicios relacionados con el uso normal del caserio, tales como transporte de piensos y alimentos, residuos liquidos y similares.

*Artículo 3.*

En estos caminos, cualquiera que sea el vehiculo la velocidad máxima será 30 km/hora. Por otra parte, en los caminos que están pavimentados, solo estará autorizado el transito de vehículos con ruedas de goma, y en todos los caminos estén pavimentados o no está prohibido expresamente el transporte de troncos mediante arrastre.

*Artículo 4.*

Los propietarios, transportistas y contratistas que precisen la utilización de una vía rural municipal deberán solicitar la oportuna licencia municipal (mediante la instancia oficial incluida en el anexo I), haciendo constar los siguientes extremos:

a) Jabe eta garraiolariaren nortasunari buruzko datuak.

b) Garraio-ibilgailuen datuak, hala nola egin beharreko bidaia-kopurua, bidaia bakoitzeko zama eta kokapen-planoan islaturiko joan-etorriak.

c) Garraiatu beharreko materialen bolumena metro kubikotan.

d) Garraioaren hasiera eta bukaera-data.

e) Material-bilketa egingo den lekuaren adierazpen grafikoa.

Baso-produktuak ateratzeko izanez gero, hurrengo dokumentazioa ere gehitu beharko da:

f) Zein menditatik aterako den eta horren kokapena (plano adierazgarrian adierazita).

g) Egin beharreko mozketarako baimena, basogintza arloan eskumena duen agintaritzak emanda.

h) Herri bide eta baso bideen erabilera berezietarako baimenarei buruzko erabakia, eskaera egiten den ondorengo 15 eguneko epean hartuko da.

Baimena emateko jakinarazpenarekin batera, eskatzaileari Ordenantza honen kopia bat emango zaio, ezagutu eta bete dezan, eta baldintza hau behar bezala egiaztatuta geratu beharko da. Halaber, Aldundian eskumena duen organoarekin datuen hartu-emana ahalbidetzeko sistema berezia ezarriko da, koordinazioa errazteko mesedetan.

*5. artikulua.*

Abendutik otsailera dauden 3 hilabete horietan ezingo da mendi-biderik erabili baso-produktuak ateratzeko.

Beste 9 hilabetetan, garraiolariak eguraldi txarra egiten duen aldietan zirkulatzea ekidingo du eta bidea behar bezalako segurtasun-baldintzetan mantentzeko hartu beharreko neurriak hartuko ditu.

Bidea erabiliko den aldia aintzat hartuz, tasa zein abala kalkulatzeko, honako haiek desberdinduko dira:

— Ohiko aldia: maiatza, ekaina, uztaila, abuztua eta iraila.

— Negu aldia: urria, azaroa, martxoa eta apirila.

Aldi biak ukituz gero, bere osotasunean negu aldia modura hartuko da.

Ezin izango da udal bidea erabili lizentzia eman gabe, nahiz eta eskaera aurkeztuta izan.

*6. artikulua.*

Udal bidea erabiltze-tasa, honela kalkulatuko da:

— Ohiko aldia: 0,25 €/m³.

1 kamioi = 4,06 €.

1 Ha = 122,00 €.

— Negu aldia: 0,50 €/m³.

1 kamioi = 8,12 €.

1 Ha = 244,00 €.

Udal bidea erabiltzeagatik tasaz gain eta bertan sor litezkeen edo auzotarrei eragindako kalteei erantzuteko berme gisa, nahitaezkoa izango da aurretik fidantza bat jartzea, beti ere 4 bidai edo gehiago egin behar direnean. Hura kalkulatzeko, urtearen aldiaz gain, garraiatutako bolumena eta erabilitako bidearen distantzia kontuan hartuko dira, (Aldundiak emandako mozketa baimenean jasotakoaren arabera) honako arauen arabera:

a) Datos identificativos del propietario y contratista.

b) Datos relativos a los vehículos dedicados al transporte así como el número de viajes a realizar, carga por viaje y trayectos reflejados en plano de situación.

c) Volumen en metros cúbicos de los materiales a transportar.

d) Fecha de inicio y finalización del transporte.

e) Si se va a realizar acopio de materiales, indicación gráfica del lugar.

En el supuesto de que se trate de la saca de productos forestales se deberá aportar además la siguiente documentación:

f) Nombre y situación del monte del que proviene (señalado en plano indicativo).

g) Autorización para la tala a realizar expedida por la autoridad competente en materia forestal.

h) La resolución sobre la solicitud de la autorización de usos especiales de caminos públicos y forestales se adoptará dentro de los 15 días siguientes a la solicitud.

Junto a la notificación de la concesión de licencia, se hará entrega al solicitante de una copia de la presente Ordenanza, para su conocimiento y cumplimiento, debiendo quedar esta circunstancia debidamente acreditada. Asimismo, a efectos de procurar la máxima coordinación con el órgano competente de la Diputación foral se establecerá un sistema de comunicación de datos con la misma.

*Artículo 5.*

En los 3 meses comprendidos entre diciembre y febrero no se podrán utilizar los caminos rurales para trasladar productos forestales.

En los siguientes 9 meses el transportista evitará circular por los caminos cuando haya mal tiempo y adoptará las medidas oportunas para que el camino esté en las debidas condiciones de seguridad.

Atendiendo al periodo de su utilización, para el cálculo la Tasa y el aval distinguirán:

— Periodo ordinario: mayo, junio, julio, agosto y septiembre.

— Periodo invernal: octubre, noviembre, marzo y abril.

En caso de que coincidan ambos periodos, se considera como periodo invernal en su totalidad.

No se podrá utilizar el camino con el vehículo pesado en tanto no se haya otorgado la correspondiente licencia, aunque se haya presentado la solicitud.

*Artículo 6.*

La tasa de utilización del vial municipal será la siguiente:

— Periodo ordinario: 0,25 euros/m³.

1 camión = 4,06 €.

1 Ha= 122,00 €.

— Periodo invernal: 0,50 euros/m³.

1 camión= 8,12 €.

1 Ha= 244,00 €.

Al margen de la tasa por la utilización del vial municipal y como garantía para responder a los posibles daños que se pudieran causar en los mismos o los daños ocasionados a vecinos, será preceptivo el previo depósito de la fianza que corresponda, siempre que se vayan a realizar 4 viajes o más, calculada (además del periodo en que se realiza) en función del volumen transportado y la distancia del camino utilizado, siguiendo las siguientes reglas:

EK\CV GAO-I-2021-06011

1. Lehenengo eta behin garraiatutako bolumenari dagokion kopurua kalkulatuko da honako zerrendaren arabera:

| *Bolumena (m³)* | *Ohikoa* | *Negukoa* |
|---|---|---|
| 1-950 (60 kamioi arte) | 4.000 | 5.000 |
| 951 edo gehiago | 8.000 | 10.000 |

2. Gero, kopuru horri gehituko zaio kilometroen arabera kalkulatutako kopurua, honako zerrenda jarraituz:

| *Distantzia (km)* | *Ohikoa* | *Negukoa* |
|---|---|---|
| 0- 1.9 | 1.000 | 2.000 |
| => 2 | 2.000 | 3.000 |

Ermintza= 2 km.

Urkia= 3 km.

Ioia= 4 km.

3. Halaber; eskatzaileak, kontratistak edota lehengaien jabeak, Ordenantza honen gorabeheran Udalarekin preskribatu gabeko zorra badauka, aurreko puntuen arabera irtendako fidantza-kopuruari gehituko dio zorraren besteko kopurua. Zorra ordaintzeko balioko du.

Fidantza esku-dirutan edo bankuko abal bidez jarri beharko da, mozketa aurretik.

Bermea ezartzeko arduraduna bidea erabiltzeko baimenaren eskatzailea izango da eta, modu subsidiarioan, garraiatu beharreko materialen jabea, horien hartzailea eta garraiolaria.

*7. artikulua.*

Fidantza titularrak eskatuta horri itzuliko zaio, behin erabili den bidearen egoera aztertuta.

Horretarako, udaleko teknikari batek jabearekin batera ikuskaritza bisita bat egingo du egindako erabileraren aurretik eta ondoren, herri-bidearen egoeraren eta egindako kalteen inguruko txostena burutuko du.

Txostenak kalteak egon direla adieraziz gero, fidantza-jartzaileari igorriko zaio 15 eguneko epean egokitzat jotzen duena alegatu dezan, eta horren ostean Udalak erabakiko du fidantza itzuliko dion ala egindako kalteak konpontzeko erabiliko duen.

Bide bera hainbat erabiltzailek erabili eta bati baino gehiagori egotzi daitezkeen kalteak gertatuz gero, erantzukizunak erabiltzaile horien artean banatuko dira, garraiaturiko materialen bolumenaren proportzioaren arabera.

*8. artikulua.*

Zergapeko gisa subjektu pasibo dira Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzeko Zerga Foru Arau Orokorraren 33. artikuluak bere baitan hartzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak, bidearen aprobetxamendu bereziak edo bidea erabiltzeko baimenak onerako zein txarrerako ukitzen dituenak. Modu subsidiario eta solidarioan erantzule izango dira baita ere baso ustiaketaren jabeak, egurraren erosleak eta egurra zein beste zernahi gauza garraiatzen duena.

Horri begira, garraioak dirauen denboran garraiolariak derrigorrez eraman beharko ditu aldean udal baimenaren jakinerazpenaren jatorrizko agiria nahiz kopia bat eta kanona eta bermea ordaindu izanaren ziurtagiriak; dokumentu horiek udaltzainei erakutsi beharko zaizkie udaltzainok eskatzen dituenean.

1. En primer lugar se calculará la cantidad en función del volumen transportado (este cálculo se realizará de conformidad al permiso de corta concedido por la Diputación) atendiendo a la siguiente escala:

| *Volumen (m³)* | *P. ordinario* | *P. invernal* |
|---|---|---|
| 1-950 (hasta 60 camiones) | 4.000 | 5.000 |
| 951 o más | 8.000 | 10.000 |

2. En segundo lugar, a la cantidad resultante se le suma la cantidad calculada en función de los kilómetros utilizados, atendiendo a la siguiente escala:

| *Distancia (km)* | *P. ordinario* | *P. invernal* |
|---|---|---|
| 0-1.9 | 1.000 | 2.000 |
| 2 o más | 2.000 | 3.000 |

Ermintza= 2 km.

Urkia= 3 km.

Ioia= 4 km.

3. En caso de que el solicitante, contratista o el propietario de los materiales tuvieran con el Ayuntamiento alguna deuda no prescrita relacionada con esta ordenanza, a la fianza resultante de los puntos anteriores se le sumará una cantidad equivalente a la deuda que servirá para cancelar la misma.

La fianza deberá depositarse en metálico o aval bancario, antes de la saca.

Será responsable del depósito de la garantía el solicitante de la licencia de utilización del vial y subsidiariamente el propietario de los materiales a transportar, su adquiriente y el transportista.

*Artículo 7.*

La fianza se reintegrará al titular a petición del mismo y una vez examinado el estado del camino utilizado.

A tal efecto un técnico municipal junto con el propietario girará visita de inspección con anterioridad y posterioridad a la utilización realizada emitiéndose informe sobre el estado del camino rural y sobre los desperfectos causados.

En caso de que del informe se deduzca la concurrencia de desperfectos, se dará traslado del mismo al depositante de la fianza para que en el plazo de 15 días alegue cuanto estime oportuno, tras lo cual el Ayuntamiento decidirá sobre su devolución o su aplicación a la reparación de los daños causados. Si la cuantía avalada no fuera suficiente se le remitirá carta de pago por la diferencia.

En el supuesto de que sean varios los usuarios de un mismo vial y existan desperfectos no achacables exclusivamente a uno de ellos, se procederá a la distribución de las responsabilidades entre los diversos usuarios en proporción al volumen de los materiales transportados.

*Artículo 8.*

Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico y quienes resulten afectados por el aprovechamiento especial o la autorización otorgada. Asimismo, en concepto de responsables solidarios o subsidiarios el propietario de la explotación, los adquirentes de la madera y los transportistas.

Al efecto será obligación del transportista durante todo el momento del transporte portar original o copia de la notificación del acuerdo municipal de concesión de licencia y de las cartas de pago justificativas del abono del canon y del depósito de la fianza, y mostrar los documentos al personal Municipal cuando así sea requerido por estos.

EK\CV GAO-I-2021-06011

*9. artikulua.*

Basogintza produktuak ateratzeko kasu zehatzean, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Garraiatu beharreko materialen biltegiratzea bidetik 5 metroko gutxieneko distantziarekin burutu beharko da, haren kanpoko ertzetik neurtuta. Basogintza produktuen kasuan, distantzia horrek hondarrei ere eragingo die (adarrak eta abarrak).

b) Biltegiratzeko gutxieneko distantzia hau ez betetzeak 100 euroko isuna ekarriko du biltegiratu edo bilduriko $m^3$ eta egun bakoitzeko.

c) Hondarrak ez kentzeak 50 euroko isuna ekarriko du $m^2$ eta eguneko.

d) Beste Administrazio Publiko batzuei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, baso-bideak irekitzea ere indarrean dagoen Hirigintzari buruzko legerian aurreikusitako baimenak eskuratzearen mende egongo da.

*10. artikulua.*

Udal-langileek eta Ertzaintzak Ordenantza hau bete dadin zainduko dute, dagokien udal baimena edo horren kopia udal herri-bideetatik ibilgailu astunekin zirkulatzen duen garraiolari orori eskatuta, eta eduki ezean, garraiaturiko materialaren berehalako ibilgetzea aginduta, lizentzia eskaera kudeatzen den artean behintzat.

Halaber, udal-langileek, lizentzia gabe edo lizentzia ez nahikoa susmoa dutenean, bertan-bertako inspekzio-akta egingo dute eta berehala jakinaraziko die interesdunei. Horrenbestez, aktak zigor jardunbideari hasiera emango dio, ala badagokio.

Horren xedez, Itsasondoko Udaleko langileak izango dira Itsasondoko Udaleko agente-inspektore baimenduak eta dagokion dokumentazioa aldean eramango dute.

*11. artikulua.*

Herri-bideetatik garraio astunekin aurretiko udal baimena lortu gabe edota baimenaren baldintzak urratuz ibiltzeak 1.000 euroko isuna ekarriko du egindako bidaia bakoitzeko, aurreko artikuluan ezarritako neurriak hartzeari kalterik egin gabe.

Zigorraren ezarpenak ez du inola ere fidantzak betearaztea edo herri-bidearen erabileragatik tasaren ordainaraztearena saihestuko.

*12. artikulua.*

Udalak ahalmena du erregelamendu hau interpretatzerakoan edo arautegirik ez dagoenean sor litezkeen edozein arazo konpontzeko.

*Azken xedapena.*

Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta Erregimen Lokalari buruzko oinarrien Lege Erregulatzailearen 70.2 artikuluko tramiteak betetzen direnean.

*Artículo 9.*

En el caso específico de la saca de productos forestales se deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) El almacenamiento de los materiales a transportar se deberá realizar a una distancia mínima de 5 metros al camino desde su arista exterior. Esta distancia afectará también a los restos de la saca (ramas, etc.) en el caso de productos forestales.

b) El incumplimiento de esta distancia mínima de almacenamiento dará lugar a una sanción de 100 euros por $m^3$ almacenado o acopiado y día.

c) La no retirada de restos dará lugar a una sanción de 50 euros, por $m^2$ y día.

d) Sin perjuicio de las competencias sectoriales que correspondan a otras Administraciones Públicas, la apertura de pistas forestales también estará sujeta a la obtención de las licencias previstas en la legislación urbanística vigente.

*Artículo 10.*

Los trabajadores Municipales y la Ertzaintza velarán por el cumplimiento de la presente Ordenanza exigiéndose la pertinente autorización municipal o su copia a todo transportista que circule con vehículos pesados por caminos rurales municipales, pudiéndose ordenar, en el caso de carecer de la misma, la inmediata inmovilización del material transportado en tanto se tramita la solicitud de la licencia.

Asimismo, los trabajadores municipales, en caso de indicios de insuficiencia o carencia de la licencia, levantarán un acta de inspección in situ que será inmediatamente notificado al inspeccionado e iniciará el expediente sancionador correspondiente, en su caso.

A estos efectos, tendrán la consideración de agentes-inspectores autorizados los trabajadores del Ayuntamiento de Itsasondo que portarán la correspondiente documentación acreditativa.

*Artículo 11.*

La realización de transportes pesados por caminos rurales sin la previa obtención de la licencia municipal dará lugar a la imposición de una multa de 1.000 euros por cada viaje realizado, sin perjuicio de la adopción de las medidas establecidas en el artículo anterior.

La imposición de sanciones no impedirá en ningún caso la ejecución de las fianzas o la exención de la tasa por utilización del camino rural.

*Artículo 12.*

El Ayuntamiento queda facultado para resolver sobre ualquier laguna que surja en la interpretación de este reglamento.

*Disposición final.*

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y cumplidos los trámites establecidos en el artículo 70.2 de la Ley de Bases Regimen Local.

EK\CV GAO-I-2021-06011